

## PRENTSA OHARRA

Hondarribiko haur, nerabe, gazte eta helduok urteko neke eta ezinak albo batera utzi eta jaiak gozatzeako aukera paregabea izan dugu pasatu berri diren jai egunotan. Mimo handiz prestatutako egitaraua anitza eta oparoa izan da eta emaitza ezin hobea. Txupinazoa lekuz aldatu dugu jendarteari gerturatzeko asmoz. Ederra izan da urrezko intsignia jaso duen pertsonarekin batera jaiari hasiera hurbilago bat ematea.

Haurren artean, margo lehiaketak arrakasta handia izan du; moto lasterketa egokitua ume guztiek partehartzeko moduan garatu da eta barraken leku aldaketak jende gehiago gerturatzeko lagundu du. Adin nagusikoen bazkaria urteroko lekuan ospatu da jai giroan eta dantzaldi polit batekin borobildu. Bentako eremuan kontzertu bikainak izan ditugu, karpa jendez lepo egon da 6an, 7an, 8an eta 10an. Azpimarratzekoa ere Portuan bizitako jai giroa.

Euriaren erronkari baikortasunez heldu diogu eta urgentziaz egin beharreko moldaketa guztiak egin dira hondarribiarrek ekintzen aukeraz gozatu ahal izateko. Ekitaldiak jendetsuak izan dira giro herrikoia gailenduz. Jai eremuak pertsona guztientzako zabaltzearen bidean aurrerapausoak ematen jarraitu dugu; mugikortasun urriko guneak gehitu dira eta indarkeria matxistaren kontrako dispositiboa indartu da, aipatzekoa izanik eraso matxisten kontrako telefonoaren eta eragileen arteko koordinazioa.

Hau guztia posible izan da udala, teknikari, herriko elkarte eta eragileekin izandako elkarlanagatik. Horregatik udalak eskerrak eman nahi dizkie jaiak aurrera ateratzeko beste behin beraien ekarpena egin duten herritar, eragile eta elkarte guztiei. Zuen laguntzarik gabe ez zen posible izango horren jai parte hartzaile eta herrikoia aurrera eramatea.

Udal gobernutik lanean jarraituko dugu Hondarribia dinamiko eta parte hartzaile bat eraikitzen jarraitzeko, denon artean merezi dugun Hondarribia bizitzeko.

Aurten, hala ere, izan da kezkatzeko eta larritzeko egoera. Alardeari dagokionez, Legezketasunaren barnean ardurazko kudeaketa bat egin dugula adierazi nahi dugu. Udala urte osoan zehar lanean aritu da adostasunak lortu nahian; eragile guztien eskaerak kontutan hartu, pertsonen eskubideak errespetatu eta tentsioa baretzeko lanean ibili gara elkarbizitza handitzeko norabidean. Abuztuaren amaieran, administratibotik lehenengoz egingo zen tramite berritua, ordutegia eta ibilbidea adostuta zeudela sinistuta ginen.

Jai bezperatan jasotako erantzuna, aldiz, ez da justua izan. Herriko jende batek kanpaina bat antolatu du alkatearen eta udal gobernuaren kontra. Iritzi publikoa manipulatzeko eta erakundeak higatzeko helburua ere izan den desinformazio kanpaina.

Funtsik gabeko zurrumurruak zabaldu dira, gezurrak esan dira: errealitatea estaltzeko eta giroa gaiztotzeko. Hondarribiarrok ez dugu hori merezi. Ondorioa iraina, mehatxua eta erasotzeko ahalegina bizitzea izan delako. Herritarren arteko tentsioa gori-gori izateko, herritarrak zatitzeko. Jokamolde hauek demokrazia eta askatasunarentzat mehatxua dira. Hori onartezina, injustua eta maltzurra da.

Baina babesa adierazi diguten herritarrak ere ugariak izan dira. Udal gobernuari babesa adierazteko keinua izan dela.

Udal gobernutik dei egiten dugu jarrera eta jokabide deitoragarri hauek bertan behera uzteko, eta konpromisoa indartzen dugu lanean jarraituko dugula Hondarribian elkarbizitza hobetzeko eta 2025eko jaiak hobekoak eta justuagoak izateko.